



3/2026 Irizpena

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duen foru agindu proiektuari buruzkoa.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak 2026ko otsailaren 4an onetsia.



Palacio Ezpeleta C/ Mayor, nº 65 31001 Pamplona- Iruña Tfno: 848 42 87 86 consejo.escolar@navarra.es
CIF: Q3150038

Alicia Ruiz Oria andrea

Lehendakaria

Sonia Soret Eguiluz andrea

Idazkaria

Eduardo Piquer Lapuerta jauna

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria/
ANPE

Arantxa Ruiz Vidorreta andrea

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria./STEILAS/

Sonia García Cifuentes andrea

Administrazioaren ordezkaria, Hezkuntza
Departamentua

3/2026 Irizpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren
Batzorde Iraunkorrak, 2026ko otsailaren
4an egindako bilkuran, aho batez onartu
du Nafarroako Foru Komunitateko
Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen
duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru
Dekretuaren eranskina aldatzen duen
Foru Aginduaren proiektuari buruzko
irizpena. Batzorde Iraunkorrak erabaki
hori hartzeko ahalmena du CENek
2025eko apirilaren 29an osoko bilkuran
hartutako erabakiaren bidez.



Juan Mendizabal Olaizola jauna

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkaria /ANEG-FERE.

Laura Sanzol Olleta jauna

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria -
FSIE-SEPNA

1.- AURREKARI ARAUEMAILEAK

80/2019 Foru Dekretuak, uztailaren 3koak, Nafarroako Foru Komunitateko
Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen du.

45/2021 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, Hezkuntzako kontseilariarena,
Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen
uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duena.

21/2022 Foru Agindua, martxoaren 31koa, Nafarroako Foru Komunitateko
ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru
Dekretuaren eranskina aldatzen dueña.



8/2023 Foru Agindua, otsailaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duena.

25/2024 Foru Agindua, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duena.

26/2025 Foru Agindua, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duena.

2.- ARAUAREN JUSTIFIKAZIOA

Uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duenak, 2. artikuluan ezartzen du ikastetxeak, lerroak eta hezkuntza-unitateak sortu, eraldatu, batu, ezabatu, integratu eta atxikitzeko prozesua.

Artikulu horren 1. paragrafoak xedatzen duenez, Foru Dekretu honi erantsi zaion eranskinean zehaztutako ikastetxeen sarearen egituraren edozein aldaketa egiteko, dela ikastetxe berriak sortu direlako, dela ikastetxe horien osaera eraldatu delako, dela ikastetxeek bat egin dutelako, dela ikastetxe bat baino gehiago ikastetxe bakar batean sartu direlako, dela, azkenik, ikastetxeen, lerroen eta hezkuntza-unitateen atxikipenean aldaketak egin direlako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak dagokion administrazio-espedientea izapidetuko du.

Era berean, 2. paragrafoak honako hau gaineratzen du: "Eskumena ematen zaio hezkuntza-arloko eskumenak esleituta dituen departamentuan kargua duen kontseilariari administrazio-espedientea izapidetu eta onartzeko, honako hauek kontuan hartuta: ikastetxeen osaeraren eraldaketa, ikastetxeen bat-egiteak, ikastetxeen, lerroen eta



hezkuntza-unitateen atxikipenaren aldaketak, edo antolamenduaren beste edozein aldaketa, salbu eta ikastetxeak sortzeko eta kentzeko, horien eskumena Nafarroako Gobernuari baitagokio, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera".

3.- FORU AGINDUAREN ZIRRIBORROAREN DESKRIBAPENA

Foru agindu honen testua artikulua bakar batean egituratzen da, eta bost puntu ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan planteatutako lau aldaketei dagozkienak, foru dekretu horren I. eranskinari gehitutako bat eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartzeari erreferentzia egiten dion azken xedapen bat.

4.- FORU AGINDU PROIEKTUAREN TESTUARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK

Proiektuarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu dira: memoria arauemailea, ekonomikoa, justifikaziozkoa, antolamenduzkoa, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena, sexu-orientazioagatiko eraginari buruzkoa, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren gaineko eraginari buruzkoa, administrazio-kargei buruzko txostena, klima-inpaktuari buruzkoa eta haur eta nerabeen gaineko eraginari buruzko txostena.



5. IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Nafarroako Eskola Kontseiluak egokitzen du Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duen foru aginduaren proposamena, eta, ondorioz, hura izapidetzearen aldeko irizpena ematen du.

Iruñean, 2026ko otsailaren 5ean

Lehendakaria

Alicia Ruiz Oria

Idazkaria

Sonia Soret Eguiluz

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA SAILBURU JAUN TXIT GORENA